

7.- GIZARTE ZIENTZIAK

7.1.- DATU BILKETAREN EZAUGARRIAK

7.1.1.- Inkesta

Gizarte Zientzietako inkestak bi azpi-proba ditu eta Likert motako 26 itenez osatuta dago. Lehendabizikoak 7 item dauzka eta arloaren **kompetentzia orokorre**i dagokie. Beste 19 itemak berriz, arloaren **kompetentzia espezifikoei** dagokie.

Aurkeztutako kompetentzia bakoitzeko itemak 5 erantzun aukera ditu. Erantzuteko, arloan irakasleak direnei kompetentzia bakoitzaren balorazioa egitea eskatu zaie. Balorazio hori, 1etik 5era doan eskalan egin behar izan dute, aukera bakoitzaren esanahia ondokoa izanik:

- 1 = Hutsala
- 2 = Garrantzi gutxikoa
- 3 = Garrantzi ertaina
- 4 = Garrantzi handikoa
- 5 = Behar beharrezkoa

Inkesten fidagarritasuna Cronbachen Barneko Sendotasun Alfa Koefizientearen bitartez kalkulatu da, ondoko taulan azaltzen diren balioak lortuz. Ikus daitekeenez balio horiek guztiz egokiak dira.

	Cronbachen Alfa	Ítem kopurua
Kompetentzia orokorren azpi-proba	0,869	7
Kompetentzia espezifikoen azpi-proba	0,922	19

Kompetentzia orokor eta espezifikoko bakoitzaren balorazio kuantitatiboaz gain, balorazio kualitatiboan egitea ere eskatu zitzaion irakasleei, ondoko koadroan agertzen den gidoia jarraituz:

1.-Gizarte Zientziak arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak
(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

2.-Iruzkinak
(Emandako balorazioari buruzko arrazoien azalpena, proposamenak...)

3.-Inkesta erantzuteko erabilitako bideak
(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

7.1.2.- Partehartzaileak

Jarraian, laginaren aldagaien ezaugarriak azaltzen ditugu, ondoren, aldagai independente gisa, azpitale bakoitzaren konparaketa egiteko erabiliko ditugunak

Ikastetxe mota

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1 ikastola	48	37,2	37,2	37,2
	3 kristau eskola	81	62,8	62,8	100,0
	Denera	129	100,0	100,0	

Lurraldea

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1 Araba	15	10	10	10
	20 Gipuzkoa	54	36,2	36,2	46,2
	31 Nafarroa	7	4,7	4,7	50,9
	48 Bizkaia	53	35,6	35,6	86,5
	Iparralde	20	13,5	13,5	100
	Denera	149	100,0	100,0	

Hizkuntz eredia

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1,00 A	27	20,9	26,0	26,0
	2,00 B	20	15,5	19,2	45,2
	3,00 D	57	44,2	54,8	100,0
	Denera	104	80,6	100,0	
Galduak	Sistema	25	19,4		
Denera		121	100,0		

7.2.- ARLOKO KOMPETENTZIA OROKORRAK

Item 1.- Autonomiaz eta zorrotasunez egitea gizarte gaietarako buruzko monografia txikiak (historikoak, geografikoak, politikoak, ekonomikoak, etab.), prozedura inductiboak nahiz arrazoiak hipotetiko-deductiboak erabiliz (dagokion moduan), modu fidagarrian aurre egiteko etorkizuneko edozein gizarte arazoren edo gai garrantzitsuren azterketari.

Item 2.- Modu zorrotzean planifikatzea eta gauzatzea gai politikoei, ekonomikoei, sozialei eta kulturei buruzko dokumentu iturrien kontsulta (liburuak, aldizkariak, datu baseak, iturri estatistikoak, dokumentu ofiziala), baita kode desberdinak dituztenenak ere (hitzezkoak, pikturikoak, grafikoak, numerikoak, etab.), aurrez ezarritako eskema baten arabera alderdi garrantzitsuenak aukeratuz eta, beharrezkoa denean, testuinguru historiko edo/eta geografikoan kokatuz, bilaketaren helburuen arabera sintesi bat egiteko.

Item 3.- Argi eta zehatz idaztea gizarte ezagutza eraikitzeko prozesuari buruzko testu generoak (deskribapen geografikoak, inkesta soziopolitikoak, azalpen testuen txostenak, etab.), baita gizarte harremanetan ohikoak direnak ere (merkataritza gutunak, eskaerak, instantziak, kexak, etab.), bateragarri eginez adierazpenezko objektibotasuna nabarduretarako gaitasunarekin eta kasu bakoitzean eskatutako erlatibizazioarekin, horren guztiaren bidez komunikazio hobea eta gizarte harremanetara eta komunikazio testuinguruetara hobeto egokituko dena lortzeko.

Item 4.- Ikaskideekin batera, interesgarriak diren gizarte gaietarako buruzko benetako talde lanak egitea, baita beste lan batzuk ere, eta modu aktiboan, sormena erabiliz, arduraz eta elkartasunez parte hartzea lan horien faseetan, bai gizarte antolaketa eta funtzionamendua ezagutzeko (esparru geografikoetan, historikoetan, ekonomikoetan, politikoetan, kulturetan eta abarretan), bai taldeko lanak egiteko teknikez jabetzeko eta elkarren arteko mendekotasun handiagoa duten pertsonen eta taldeen gizarlan positiboki baneratzeko.


Item 5.- Interes komunekeo gaien kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, planteatzen diren gaiak zorroztasunez aztertuz, interes edo ideia gatazkei prozedura demokratikoen bidez aurre eginez eta norberaren uste osoak defendatzeko sendotasuna eta adostasunetara iristeko gaitasuna bateratuz, bazterketarik ez gertatzeko eta modu berean pentsatzen edo sentitzen ez dutenekin bakean eta errespetuz bizi ahal izateko.

Item 6.- Ikaslea pertsona bakarra eta konplexua dela onartzea, eta besteekiko harremanetan dituen ezaugarriak eta akatsak onartzea, euskal gizarteko kide moduan identifikatzen duten kultur ezaugarriez jabetzea eta horiek balioestea, eta beste talde batekoa eta, oro har, gizakien taldekoa izatearen sentimenduarekin bateragarri egitea, gizarte tolerantzia eta ez-baztertzaila eraikitzen saiatzeko.

Item 7.- Ekintza irudimentsuak eta eraginkorrak sustatzea eta ekitea, gizarteko errealitateko maila eta esparru desberdinetan, errealitateak eta egoerak aztertuz eta ebaluatuz, ekintza alternatiboak asmatuz, lortu nahi diren helburuetara egokitutako estrategien plangintza eginez eta abian jarritz, eguneroko bizitzako egoeretan ekiteko moduak hobetzeko, bai besteekiko harremanei dagokienez, bai natura baliabideen erabilerrari dagokienez.


7.2.1.- Konpetentzia orokorrak eta ikastetxe-mota

ikastetxe mota		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6	ko7
1 ikastola	Batazb.	4,23	4,54	3,98	4,54	4,63	4,67	4,22
	N	48	48	47	48	48	48	45
	Desb. tip.	,627	,582	,944	,651	,606	,559	,704
3 kristau eskola	Batazb.	3,98	4,16	3,58	4,19	4,25	4,20	3,66
	N	80	81	81	81	81	80	80
	Desb. tip.	,711	,749	,947	,776	,699	,892	,913
Denera	Batazb.	4,07	4,30	3,73	4,32	4,39	4,37	3,86
	N	128	129	128	129	129	128	125
	Desb. tip.	,689	,714	,962	,750	,688	,813	,883




7.2.2.- Konpetentzia orokorrak eta lurraldea

lurraldea		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6	ko7
Araba	Batazb.	3,73	3,73	3,73	3,73	3,73	3,73	3,73
	N	15	15	15	15	15	15	15
	Desb. tip.	,704	,704	,704	,704	,704	,704	,704
Gipuzkoa	Batazb.	3,98	3,98	3,98	3,98	3,98	3,98	3,98
	N	52	52	52	52	52	52	52
	Desb. tip.	,918	,918	,918	,918	,918	,918	,918
Nafarroa	Batazb.	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00
	N	7	7	7	7	7	7	7
	Desb. tip.	,816	,816	,816	,816	,816	,816	,816
Bizkaia	Batazb.	3,76	3,76	3,76	3,76	3,76	3,76	3,76
	N	51	51	51	51	51	51	51
	Desb. tip.	,907	,907	,907	,907	,907	,907	,907
Denera	Batazb.	3,86	3,86	3,86	3,86	3,86	3,86	3,86
	N	125	125	125	125	125	125	125
	Desb. tip.	,883	,883	,883	,883	,883	,883	,883



7.2.3.- Konpetentzia orokorrek eta hizkuntz eredua

hizkuntz eredua		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6	ko7
1 A	Batazb.	4,04	4,19	3,81	4,19	4,30	4,07	3,81
	N	27	27	27	27	27	27	26
	Desb. tip.	,649	,736	,921	,622	,542	,917	,694
2 B	Batazb.	4,05	4,35	3,60	4,40	4,35	4,45	3,75
	N	20	20	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,394	,671	,821	,681	,671	,605	1,020
3 D	Batazb.	4,20	4,37	3,75	4,42	4,46	4,46	4,02
	N	56	57	56	57	57	57	54
	Desb. tip.	,616	,645	,958	,755	,629	,781	,835
Denera	Batazb.	4,13	4,32	3,74	4,36	4,39	4,36	3,91
	N	103	104	103	104	104	104	100
	Desb. tip.	,589	,672	,918	,709	,614	,799	,842



7.3.- ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Item 1.- Zehatz eta zorrotz interpretatzea mapetako eta grafikoetako informazioak, errealitate historikoen, geografikoen, ekonomikoen eta abarren adierazle direnak, eta haien artean azalpen harremanak ezartzea.

Item 2.- Paisaien behaketa sistematikoa eta haietan izaten diren aldaketa prozesuena egitea autonomiaz, eta aldaketa horiek eragiten dituzten balizko faktore sozialekin lotzea.

Item 3.- Bakarka interpretatzea Euskal Herriko paisaiaren aniztasuna, egungo osaera eragin duten faktore fisiko eta sozialak kontuan hartuz.

Item 4.- Gizarte informazioak (historikoak, demografikoak eta ekonomikoak) bilatzea, erregistratzea eta modu fidagarrian lantzea, helburua lortzeko iturri egokienak erabiliz (bibliografikoak, estatistikoak, dokumentalak, etab.), baita Informazio Teknologia Berrien baliabideak ere.

Item 5.- Bakarka planifikatzea eta egitea gai sozialei buruzko monografia txikiak, gutxieneko zorrotzasunaren eta sistematizazioaren bidez eta bibliografia nahiz leheneskuko dokumentu iturriak erabiliz.

Item 6.- Taldeko lanetan eta jardueretan parte hartzea modu eraikitzailean, arduratsuan eta solidarioan; lan eta jarduerak eskolako lanak eta jarduera ludikoak batera egitera bideratuko dira, baita pertenezko taldeetan gizartean esku hartzeko proiektuak egitera ere.

Item 7.- Pertenezkoa eta erreferentzia taldeen eta erakundeen (familia, eskola, herria, autonomia erkidegoa, estatua, etab.) antolakuntza egiturak eta ohiko funtzionamendu erak kritikoki aztertzea, eta egoki zehaztea demokraziaren funtzionamendua bideratzen duten oinarritzko irizpideak.

Item 8.- Zorroztasunez eta enpatiarako gaitasunez aztertzea pertsonen eta taldeen arteko gizarte gatatzak; aurrera egiteko aukeratzat hartzea eta horiek konpontzeko bake prozedurak erabiltzea sustatzea.

Item 9.- Euskal Herriari identitate berezia eman zioten eta dioten hizkuntza, kultur, zuzenbide, politika... ezaugarriak deskribatzea eta balioestea, eta bilakaera horretan eragin duten faktore nagusiak identifikatzea.

Item 10.- Euskal lurraldeen gertaera historikoak -horientzat bereziki garrantzitsuak izan diren une historikoetan- Europako historian kokatzea, eta bakoitzaren esanahi politikoa, ekonomikoa eta kulturala zehaztea.

Item 11.- Euskal lurraldeen arteko antzekotasun eta desberdintasun sozioekonomikoak identifikatzea, eta horien adierazleak eta geografia eremu desberdinetako herrialdeenak alderatzea.

Item 12.- Esanguratsuak izan daitezkeen korrelazioak ezartzea, batetik, herrialde batzuen adierazle ekonomikoen artean eta, bestetik, adierazle demografikoen eta kulturalen artean, berezitasunak azalduz eta azalpen hipotesiak ematen saiatuz.

Item 13.- Eguneroko bizitzak herritarrari erakundeekiko harremanetan eskatzen dizkion kudeaketak autonomiaz egitea: merkataritza eta finantza operazioak, errentaren aitortpena, eskaerak, kexak eta erreklamazioak formalizatzea, curriculum, etab.

Item 14.- Jarduerak egitea eta aktiboki eta sormena erabiliz parte hartzea hainbat esparrutako erakunde espezifikotik (eskolakoak, lanekoak, etab.), eta hainbat mailatan gizabanakoen eta kolektiboaren eskubideak aldarrikatzea erakundeetan, zuzentasunez baina irmoki.

Item 15.- Norberaren prestakuntzara bideratutako ekimenak egitea (norberaren beharretara eta gizartearen eskakizun berrietara egokitutakoak), eta erakunde sistemak ematen dituen aukerei buruzko informazioa bilatzea eta sarean horri buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko gai izatea.

Item 16.- Gizarte errealitatea hobetzeko eta natura defendatzeko proiektuetan konprometitzea, ideologietan eta norberaren edo/eta kolektiboaren interesetan oinarritutako hausnarketan eta iritzi kritikoen ondorioz.


Item 17.- Zenbait txostenen datu objektiboaren azterketetatik abiatuta, zenbait giza jardueren natura nola honda dezaketen aurreikustea, ekintza pertsonal koherenteak prestatzeko eta aktiboki eta arduraz inplikatzen praktika kontserbazionistak sustatzen.

Item 18.- Euskal gizartean gero eta kultur talde gehiago daudenez, talde horiekin arduraz eta modu eraikitzailean lankidetzan aritzea, norberaren kultur ezaugarriak balioetsiz eta mantenduz, besteenak errespetatuz eta haiekiko interesa agertuz, eta kultur partekatua osatzen lagunduz.

Item 19.- Gizarte Arloaren balorazioa oro har


7.3.1.-Kompetentzia espezifikoak eta ikastetxe-mota

Ikastetxe-mota		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18	kes 19
1 ikastola	Bataz.	4,73	4,15	4,43	4,57	4,15	4,56	4,40	4,50	4,63	4,48	4,35	4,10	3,49	3,98	3,94	4,17	4,08	4,57	4,47
	N	48	48	47	47	48	48	48	48	48	48	48	48	47	47	47	48	48	47	43
	Desb. tip.	,494	,684	,580	,542	,652	,649	,574	,772	,531	,545	,668	,778	1,249	,921	,895	,859	,919	,651	,631
3 kristau eskola	Bataz.	4,40	3,86	3,96	4,14	4,09	4,06	3,88	4,10	4,11	3,96	3,71	3,51	3,26	3,47	3,35	3,77	4,04	4,36	3,92
	N	81	81	81	80	81	81	81	81	79	79	80	81	80	81	79	81	81	80	75
	Desb. tip.	,683	,833	,798	,924	,711	,796	,900	,917	,891	1,031	,930	,963	1,188	1,038	1,013	1,003	,813	,799	,801
Denera	Bataz.	4,52	3,97	4,13	4,30	4,11	4,25	4,07	4,25	4,31	4,16	3,95	3,73	3,35	3,66	3,57	3,91	4,05	4,44	4,12
	N	129	129	128	127	129	129	129	129	127	127	128	129	127	128	126	129	129	127	118
	Desb. tip.	,639	,790	,757	,829	,687	,781	,831	,884	,812	,912	,895	,942	1,211	1,023	1,007	,968	,851	,752	,786




7.3.2.- Konpetentzia espezifikoak eta lurraldea

lurraldea		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18	kes 19
1 Araba	Bataz.	4,60	4,13	4,13	4,53	4,07	4,13	4,00	4,33	4,27	4,07	4,13	3,80	4,00	3,80	3,67	4,13	4,27	4,50	4,17
	N	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	14	15	15	15	15	14	12
	Desb. tip.	,632	,516	,640	,516	,704	,743	,655	,724	,458	,594	,516	,941	1,109	,941	,816	1,060	,704	,650	,718
20 Gipuzkoa	Bataz.	4,52	4,00	4,19	4,42	4,06	4,26	4,13	4,28	4,32	4,24	4,07	3,83	3,19	3,74	3,65	3,91	4,02	4,42	4,21
	N	54	54	53	53	54	54	54	54	53	54	54	54	54	53	54	54	54	53	53
	Desb. tip.	,606	,752	,735	,865	,738	,935	,825	,899	,894	,930	,773	,986	1,150	,984	,994	1,033	,858	,819	,769
31 Nafarroa	Bataz.	4,86	3,86	4,14	4,29	4,14	4,43	4,29	4,57	4,57	4,29	3,86	3,71	3,71	3,86	3,86	4,29	4,14	4,71	4,50
	N	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	6
	Desb. tip.	,378	,690	,378	,488	,690	,787	,756	,787	,535	,488	,900	,756	1,113	,900	,900	,951	,690	,488	,837
48 Bizkaia	Bataz.	4,45	3,91	4,08	4,12	4,17	4,25	4,00	4,15	4,27	4,08	3,79	3,60	3,29	3,51	3,42	3,81	4,02	4,42	3,96
	N	53	53	53	52	53	53	53	53	52	51	52	53	52	53	50	53	53	53	47
	Desb. tip.	,695	,904	,851	,878	,643	,617	,899	,928	,843	1,017	1,073	,927	1,273	1,103	1,090	,878	,909	,745	,806
Denera	Bataz.	4,52	3,97	4,13	4,30	4,11	4,25	4,07	4,25	4,31	4,16	3,95	3,73	3,35	3,66	3,57	3,91	4,05	4,44	4,12
	N	129	129	128	127	129	129	129	129	127	127	128	129	127	128	126	129	129	127	118
	Desb. tip.	,639	,790	,757	,829	,687	,781	,831	,884	,812	,912	,895	,942	1,211	1,023	1,007	,968	,851	,752	,786



7.3.3.- Konpetentzia espezifikoak eta hizkuntz eredua

eredua		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes1 3	kes1 4	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18	kes 19
1 A	Bataz.	4,48	4,19	4,04	4,30	4,11	4,04	3,81	4,04	3,96	3,85	3,52	3,56	3,77	3,78	3,73	3,96	4,33	4,59	4,08
	N	27	27	27	27	27	27	27	27	27	26	27	27	26	27	26	27	27	27	24
	Desb. tip.	,580	,622	,808	,609	,698	,649	,921	1,055	,940	,925	1,189	,974	1,177	,934	,919	,980	,734	,501	,717
2 B	Bataz.	4,40	3,60	3,85	4,15	4,20	4,25	4,00	4,45	4,42	4,10	3,85	3,50	3,30	3,60	3,30	3,70	3,85	4,40	4,05
	N	20	20	20	20	20	20	20	20	19	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,598	,821	,745	,813	,523	,716	,795	,759	,692	,912	,671	,946	1,129	1,188	1,031	,923	,671	,821	,510
3 D	Bataz.	4,60	4,00	4,32	4,45	4,09	4,35	4,19	4,37	4,51	4,44	4,28	3,91	3,36	3,77	3,71	4,00	4,09	4,33	4,23
	N	57	57	56	56	57	57	57	57	57	57	57	57	56	56	56	57	57	55	53
	Desb. tip.	,623	,802	,606	,761	,689	,855	,766	,672	,735	,682	,726	,931	1,151	,934	,929	,926	,830	,818	,724
Denera	Bataz.	4,53	3,97	4,16	4,35	4,12	4,25	4,06	4,30	4,35	4,22	4,00	3,74	3,45	3,74	3,64	3,93	4,11	4,41	4,15
	N	104	104	103	103	104	104	104	104	103	103	104	104	102	103	102	104	104	102	97
	Desb. tip.	,607	,782	,711	,737	,658	,785	,822	,811	,813	,828	,914	,955	1,157	,980	,952	,938	,787	,749	,682



7.4.-EMAITZEN LABURPENA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

7.4.1.- Emaizten laburpena

Konpetentzia orokorrak

Gizarte Zientziak arloan planteatutako 7 konpetentzia orokorretatik, denak oso ondo onartuak izan dira kontsultatutako irakasleengandik, 4 baino altuagoak diren balioak lortuz (balioak 1etik 5era izan daitezkeela kontutan hartu behar da). Salbuespenak 3. (batezbestekoa 3,73) eta 7. (3,86) konpetentzia orokorretan eman da. Beraz, konpetentzia hauek berrikusi beharko lirateke, alegia, barnean sartzeko, aldatzeko edo alde batera uzteko posibilitateak aztertu beharko lirateke.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (sarea, lurraldea eta hizkuntza eredu), konpetentzia orokorren balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipa daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia orokorre emandako balorazioetan.
- Era berean, hizkuntza eredu desberdinetako ikastetxeetako irakasleek egindako balorazioetan ere, ez da diferentzia adierazgarririk antzeman konpetentzia orokorretan.
- Bestalde, estola sarearen arabera irakasleek egindako balorazioetan berriz, lortutako diferentziak gehienetan estatistikoki adierazgarriak dira. Aurretako tauletan beha daitezkeen bezala, 2., 4., 5., 6. eta 7. konpetentzia orokorrak hobeto baloratuak izan dira ikastoletako irakasleengatik, kristau eskolako irakasleengatik baino. Hala ere, nahiz eta kristau eskoletako irakasleen balorazioak baxuagoak izan, kasu guztietan, 7. konpetentzia orokorrean izan ezik, balorazioak 4aren gainetik daude eta honek konpetentzia horien onarpen maila adierazten du.

Konpetentzia espezifikokoak

Gizarte Zientziak arloko 19 konpetentzia espezifikoei buruz irakasleek egindako azterketaren emaitzek, orokorrean ondo onartuak izan direla erakusten dute, kasu gehienetan batezbesteko balioak 4 baino altuagoak baitira. Dena den, berrikuspena behar duten 4 konpetentzia badaude (12., 13., 14. eta 15. konpetentziak). Kasu hauetan lortutako batezbesteko balioak 4 baino baxuagoak izan dira eta honek irakasleen aldetik onarpen orokorra ez du bermatzen.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (sarea, lurraldea eta hizkuntza eredu), konpetentzia espezifikoen balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipa daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia espezifikoei emandako balorazioetan.
- Era berean, hizkuntza eredu desberdinetako ikastetxeetako irakasleek egindako balorazioetan ere, ez da diferentzia adierazgarririk antzeman konpetentzia espezifiko gehienetan. Hala ere, 10. eta 11. konpetentziak gehien baloratu
- dituztenak D eredu irakasleak izan dira, ondoren B ereduak eta azkenik A ereduak.
- Eskola-sarearen arabera, egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira kasu gehienetan. Aurretiko tauletan ikus daitezkeen bezala 1., 3., 4., 6., 7., 9., 10., 11., 12., 14., 15. eta 19. konpetentzia espezifikoko ikastoletako irakasleek balorazio altuagoak egin dituzte kristau eskoletako irakasleek baino. Dena den, nahiz eta kristau eskoletan balorazioak baxuagoak izan, balorazio horiek 4aren inguruan edo gainetik daude, 11., 12., 14. eta 15. konpetentzietan izan ezik.

7.4.2.- Hobekuntza proposamenak

Gizarte Zientzietako arloaren Euskal Curriculumean egiten den planteamenduan ondorengo zailtasunak aurkitzen dira, gutxienez. Lehenengo zailtasuna Gizarte Zientzien planteamendu osoari dagokio, zailtasun hori bere baitan irakasgai asko hartzen dituen arloa izatek etortzen zaio. Bigarren zailtasuna bere-berea du Euskal Curriculumak, eta, partikularra eta unibertsala kontuan harturik, Gizarte Zientzien planteamendu orekatu bat egitea da erronka. Hirugarrena zailtasuna heziketa-konpetentzien inguruko planteamendu kurrikular berritzaile bat egiterakoan sortzen da. Ez da samurra zailtasun horiek guztiak gainditu eta airoso ateratzea, baina Gizarte Zientzietako planteamenduaren merituetariko bat horretan ahalegintzea da eta, ikusiko dugun bezala, emaitza positiboekin, nahiz eta, argi dagoen bezala, hainbat kritika jaso.

Arloaren konplexutasuna bere eragin esparrua laburtuta konpon zitezkeen, geografia eta historiara mugatuta, sarri egin ohi denez, baina aukera hori ez litzateke koherentea izango derrigorrezko eskolaratze aroan hezkuntzak duen zentzu eta eginkizunarekin, jendea bizitzarako prestatzea, alegia. Aukera murriztailea izango zen.

Euskal Herrian, partikularren eta unibertsalaren arteko formula orekatua aurkituko lukeen Gizarte Zientzien planteamendua egitea oso ahalegin zaila da, kontuan izanda euskal izaera kulturala aitortzerakoan zein jarrera ideologiko kontrajarriak dauden. Norberaren erreferentetik abiatutako planteamendua egitea, baina aldi berean inguruko kulturetara, Europara eta mundura irekia, iruditzen

zaigu aukera zuzena, baina garbi izanda ezinezkoa dela denak pozik uztea, norberaren erreferenteak ez direlako behar beste azpimarratzen, batzuen ustez, edo gehiegi azpimarratzen direlako, beste batzuen ustez.

Kontzeptuala izaten da Gizarte Zientzien ohiko planteamendua helburuak, edukiak eta irizpideak formulatzeko orduan. Gizarte Zientzien arloa historia, antropologia, geografia, demografia, ekonomia, zuzenbidea, soziologia, politika... ezaguerak izateko balio duen esparrutzat ulertu izan da. Gizarte Zientzietako Euskal Curriculumaren ardatza ikasleak DBH amaitzean izan behar dituen konpetentzien inguruan ari da. Ikasleak, geografia, historia... ezagueretatik abiatuta, bizitzarako prestatu behar du eta gai izan behar du monografiak egiteko, informazio-iturrietara jotzeko, proiektu bat gestionatzeko, taldean lan egiteko, eta abar. Berria egiten den ikuspegi-aldaketa inportante bat dago, eta horrek zaildu egiten du irakasleen eta Gizarte Zientzietako adituen aldetiko aitortza eta onarpena. Beharbada zailagoa gertatzen da aitortzeko eta onartzeko, planteamendu prozedurazkoagoak dituzten beste arlo kurrikular batzuk baino.

Hala ere, proposamenaren batez besteko balorazioa altua izan da, "Emitza kualitatiboen laburpena" (7.2.3) atalean agertzen denez, bai konpetentzia orokorretan eta bai berezietan.

Konpetentzia orokorrak

Konpetentzia orokorrei begiratzen badiegu, denek 4tik gorako puntuazioak dituzte, 3 (3,73 batez beste) eta 7 (3,86 batez beste) konpetentziek izan ezik.

3 konpetentzia zerari buruz ari da: "modu argi eta zehatzean idaztea gizarte-ezagutzaren eraikuntzarekin lotutako testu mota desberdinak (geografia-deskripzioak, inkesta soziopolitikoak, txostenak, azalpen-testuak, eta abar), eta gizarte harremanetan ohikoak diren beste batzuk (gutun komertzialak, eskaerak, instantziak, kexak, etab.), bateragarri eginez adierazpen zehatzaren objektibotasuna ñabarduretarako konpetentziarekin eta kasu bakoitzak eskatzen duen erlatibotasunarekin, gizarte harreman eta testuinguru komunikatibo ezberdinetara egokitutako komunikazio hobearen lortu ahal izateko. Gai honi buruz "Emitza kualitatiboak" sailean (7.2.4.) egiten diren balorazioek nabarmentzen dute gutunak, instantziak eta abar idaztea ez dela Gizarte arloko eginkizun berezia, Hizkuntzarena baizik; gehiegizko garrantzia ematen zaiola lan monografikoak egiteari...

7. konpetentzia honetaz ari da: "Ekintza irudimentsu eta eraginkorrak sustatzea eta bideratzea, gizarte-errealitatearen maila eta esparru ezberdinetan, egitate eta egoera ezberdinak aztertuz eta ebaluatuz, jokatzeko era alternatiboak asmatuz, jarritako helburuetara zuzendutako estrategiak planifikatuz eta abian jarri, bizitzan egunero sortzen diren egoeretan jokatzeko erak hobetuz, besteekiko harremanetan zein baliabide naturalak erabiltzeko orduan". Konpetentzia orokor honen iruzkinean aipatzen den bezala, Gizarte-Zientzien ikasketa-erakusketaren zeregin nagusienetarikoa gizartearen esparruan ekintzaile izaten ikastea da, protagonismoa eta ardura norberaren gain hartuz. Ikaslea ekintzaile izatea lortzea ez da Gizarte Zientzietako irakasleen ardura bakarrik, eskolarena, familiarena eta hezkuntza-eragile guztiena ere bada.

3. eta 7. konpetentzietan egiten zaizkien kritikak ez dagozkie konpetentzia horiei era eksklusiboan, konpetentzien planteamendu orokorri ere erants dakizkieke. Garbi dago konpetentzien lorpena, garrantzitsuak badira behintzat, ez dagoela Gizarte arloko irakasleen esku bakarrik, edo eskolaren esku, erantzukizuna familiarena eta beste hezkuntza-instantzia batzuen ere badela. Garrantzitsua da erantzukizunak mugatzea. 3. konpetentziaren lorpenean eskola osoa dago inplikaturik, beren lana koordinatu beharko duten Hizkuntza eta Gizarte arloen protagonismoaz. 7. konpetentziaren lorpena ez dago eskolaren esku bakarrik, erantzukizuna familiarena eta beste hezkuntza-instantzia batzuen ere bada. Gizarte ekintzaile izaten ikastea metadiziplinarra da, eta, beraz, haren garapena ez dagokio Gizarteko irakasleari bakarrik, baina hari ere bai.

Konpetentzia bereziak

Emitza kuantitatiboen laburpenak ondorio gisa esaten duen bezala (7.2.3), "Irakasleek aztertutako 19 konpetentzien emaitzak erakusten dute, orokorrean, inportantetzat jotzen direla, gehienetan 4tik gorako baloreak lortzen baitituzte. Hala ere, badira berrikusi beharreko lau konpetentzia (12, 13, 14, eta 15), lortu dituzten batezbestekoak 4tik behera geratzen direlako, datu hau irakasleen artean duten onarpen falta orokorren adierazgarria baita.

12, 13, 14 eta 15 konpetentziak arreta handiagoz aztertzen baditugu, ikus dezakegu 13.ak zerikusia duela 3. konpetentzia orokorarekin, eta 14 eta 15 konpetentziek 7. konpetentzia orokorarekin, denak 4tik beherako batezbesteko balorazioa izan dutenak, hain zuzen, lehen ikusi dugun bezala. Sakoneko arazoak berdina izaten jarraitzen du. Konpetentzia orokorren zein berezien balorazio kualitatiboen multzoan badira errepikatzen diren kalifikatzaileak, gogoeta merezi dutenak, dela proposamena hobeto azaltzeko, dela aldatzeko. Esaten da proposamena "anbiziotsua, utopikoa, handinahia, ikasleen ahalmenetatik urrun dagoena, egingaitza, praktikara eraman ezina, ohiko planteamenduetatik urrun dagoena..." dela. Ikasle bat derrigorrezko hezkuntza amaitzean aurrekontu bat, nomina bat edo faktura bat ulertzeko, edo erreklamazio bat, edo bere curriculum (13) idatzeko gai izatea esan liteke bizitzarako beharrezkoa den konpetentzia dela. Gauza bera esan daiteke eskolako ekitaldietan ekintzailea izateaz eta ikasgelaren barruan ardurak hartzeaz, edo ikasleen eskubideen alde egiteaz... (14). Edo planifikatzen jakiteaz eta

baliabideak zentzuz planteaturiko plan bat besteekin adosteaz eta negoziatzen jakiteaz diharduen kompetentzia (15). Kompetentzien araberako planteamendu hau, ardatz kontzeptuala edukitzen duten beste ohiko planteamenduetatik urruntzen da, eta horregatik da anbiziotsua. Besteengandik desberdina izateak, eta anbiziotsua ere bai, beharbada, ez du esan nahi utopikoa eta eginezina denik. Berez, derrigorrezko hezkuntzaren eginkizunaren ikuspegitik, ikasleak bizitzarako prestatzea, alegia, kompetentziak egiten den planteamenduak, eta Gizarte Zientzietan zehazki, hobekuntza dakar. Honek ez du esan nahi proposatzen diren kompetentzia bereziak anbiziotsuegiak ez direnik 16 urte ikasleentzat, eta berrikuspena behar ez dutenik.

Edukiak

Edukiei buruzko balorazio kualitatiboak dantzan dabilta, batzuentzat: "lokalista, Euskal Herrian zentratuegia, ukitu nazionalistakoa" da proposamena, eta beste batzuentzat, berriz "orokorregia eta denentzat balio duena, Euskal Herriaren historia bere buruaren ikuspegitik aurkezten ez duena, gaurko status quo-ari eusten diona, Estatuaren, Zuzenbidearen, Kapitalismoaren... dogmak zalantzan jarri gabe". Konponbide zailko arazoa da eta elkarbizitzarako erronketako bat Euskal Herrian eta munduan. Euskal Herriaren eta humanitatearen arteko lotura erraza egingo duen formula baten aldeko apustua egiten da Euskal Curriculumean, partikularraren eta unibertsalaren artekoa, beti ere abiapuntu hartuta komunitate guztiek, herri guztiek duten "betebeharra eta eskubidea bere kultura birsortzeko eta garatzeko maila guztietan, bere kideei transmititzeko familiaren, eskolaren eta beste komunikabideen bitartez" (F. Mayor Zaragoza). Beti hobetu daitezke gauzak alor honetan, eta mereziko du proposamena berrikustea, egin diren balorazio kualitatiboak kontuan hartuta.

Asko izan daitezke kompetentzien ordena erabakitze irizpideak. Hobetzeko proposamenen artean bada aintzakotzat hartzea merezi duen bat. Honelaxe dio: "Uste dut honela egituratu litekeela (posibilitate bat da beste askoren artean) errealitateari buruzko ondorengo ezagutza- eta erabakitze-sekuentzia; dagoena eta kudeagaitzagoa dena (deskripzioa), egiturazkoa dena (botereek, eragileek, kolektiboek eta egiturek sortua) eta errealitatea aldatzeko pentsa daitekeena". Proposamen horretan, eta, ardatz egiturazailer bezala, Euskal Curriculumeko proposamenaren edukietan oinarrituta, kompetentziak hiru ardatz handiren inguruan egitura daitezkeela pentsatzen dugu:

- a) Gizartearen deskripzioa (deskribagarria, dagoena eta kudeagaitzagoa dena): 3, 1, 2, 9, 6 eduki-multzoak
- b) Gizarte-antolaketa (normatiboa eta preskriptiboa): 4, 5, 8 eduki-multzoak
- c) Gizarte eta gizarte-antolaketa etorkizun klabearen (prospektiboa): 10, 11 eduki-multzoak.

Oharra: Berrikustekoa da 7 Multzoaren lekua Gizarte Zientzietan ala Natur Zientzietan dagoen.

Edukiei dagokienez, kontzeptuzkoei, batik bat, batzuek pentsatzen dute kontzeptu asko falta direla, eta hobekuntza proposamenak egiten dituzte. Ez ditugu banan-banan azaltzen, baina uste dugu kontuan hartu beharrekoak direla hasierako proposamena hobetzeko orduan.

Laburtuz, pentsatzen dugu:

- Gizarte Zientzietako oraingo Curriculumaren gaikako planteamenduari eutsi egin behar zaiola, Euskal Curriculumaren planteamendu orokorrekiko koherente izateko, nahiz eta planteamendu hau ohikotik urrun egon.
- Kompetentzia orokorrak eta bereziak berrikustea komeni litzateke, baina batez ere 4tik beherako batezbesteko puntuazioa jaso dutenak, arloarekin zerikusi berezia duten kompetentziak nabarmetzen saiatuz; eta, gainera, lehengoak mantentzea ala aldatzea komeni den erabaki beharko litzateke.
- Eduki-multzoen egitura berriz aztertu beharko litzateke, mantentzea edo aldatzea komeni den erabaki ahal izateko.
- Hasierako proposamenean proposatzen diren edukizko kontzeptu berriak txertatzen saiatu beharko litzateke, partikularra eta unibertsala artikulatzeko irizpidearekin bat datozen neurrian.